



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN

zinegotziak

JONE ZUBELDIA ALTUNA

ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA

ITZIAR SAENZ DE OJER MARTINEZ

IRAITZ OLAETXEA BALERDI

SABINO SAN SEBASTIAN MURUA

AITZOL ZUBELDIA IBARLUZEA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2019ko abenduaren 16an, gaueko 20:30etan, eta Udaleko alkate udalburua, Iñaki Azpiroz Beldarrain izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearen, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

2019/423 Dekretua

2019/440 Dekretua

LAUGARRENA. 2020 URTEKO AURREKONTU OROKORRA, LANPOSTUEN ZERRENDA ETA PLANTILLA ORGANIKOA ONARTZEA

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaietan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 2020 urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituz:

SARRERAK

| Kapitulua | Izena | € Guztira/ |
|-------------------------|----------------------------|-------------------|
| 1 | Zuzeneko Zergak | 125.760,75 |
| 2 | Zeharkako Zergak | 1.000,00 |
| 3 | Tasak eta Bestelako Zergak | 83.331,08 |
| 4 | Transferentzi Arruntak | 497.908,17 |
| 5 | Ondare Sarrerak | 0,00 |
| 7 | Kapital Transferentziak | 35.000,00 |
| 9 | Pasibo Finantzarioak | 0,00 |
| SARRERAK GUZTIRA | | 743.000,00 |

GASTUAK

| Kapitulua | Izena | € Guztira |
|-------------------------|---|-------------------|
| 1 | Pertsonal Gastuak | 263.727,81 |
| 2 | Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuetan | 306.398,19 |
| 3 | Finantza Gastuak | 0,00 |
| 4 | Transferentzi Arruntak | 124.874,00 |
| 6 | Inbertsioak | 48.000,00 |
| 9 | Pasibo Finantzarioak | 0,00 |
| IRTEERAK GUZTIRA | | 743.000,00 |

2020 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA
KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETA KO LANPOSTUAK

| IZENA | Lanp. Kop. | T.6/89 L. 43. Art. | Egoera | % |
|---|------------|--------------------|--------|-----|
| IZAERA NAZIONALEKO FUNTZIONARIAK Idazkari-Kontuhartzaitzaren Azpimaila IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA | 1 | A1/A2 | J | 70% |
| ADMINISTRAZIO OROKORRAREN MAILA Laguntzaileen Azpimaila ADMINISTRAZIO OROKORREKO LAGUNTZAILEA | 1 | C2 | J | |



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

| | | | | |
|---|--------|---------|--------|--------|
| ADMINISTRAZIO BEREZIAREN MAILA Azpimaila Teknikoa * Mota: Erdiko Teknikariak | | | | |
| GIZARTE LANGILEA Administratiboa/ * Mota: Laguntzailea | 1 | A2 | H | 37,78% |
| LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA Zerbitzu Bereziak *Mota: Ofizioetako Pertsonala | 1 | C2 | J | 41,55% |
| ZERBITZU ANITZETARAKO OFIZIALA GARBITZAILEA | 1 1 | C2 E | J J | 55,40% |

2020rako LANPOSTUEN ZERRENDA

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

| Lanp. Izena | Esk | Azpi-es | Titulaz. | S.P. | Ded. | Taldea | Maila | Os. Esp | H.E. | Der. Dat | Egoera |
|-------------------------|---------|----------|------------------------------|------|--------|--------|-------|-----------|------|----------|---------|
| IDAZKARI-KONTU HARTZAI | Adm. O | F.H.N. | P Zient-Zuzenb. Diplomaturia | C | % 70 | A1-A2 | 23 | 26.138,14 | 4 | 91-02-06 | Aktiboa |
| ADMINISTRARI LAGUNTZAIL | Adm. O | Lagunt | Eskola Grad. edo LH1 | C | %100 | C2 | 14 | 23.189,60 | 3 | 91-02-06 | Aktiboa |
| GIZARTE LANGILEA | Adm. B | Teknik. | Diplomaturia | C | % 37,8 | A2 | 17 | | 3 | 91-12-01 | Hutsa |
| LANETAKO OFIZIALA | Adm. B | Zer.Ber | Eskola grad. edo LH1 | C | %100 | C2 | 16 | 24.122,14 | 2 | 91-02-06 | Aktiboa |
| LIBURUTEGIKO LAGUNTZAI | Adm. O | Lagunt | Eskola Grad. Edo LH1 | C | %41,6 | C2 | 13 | 7.968,94 | 3 | 96-04-01 | Aktiboa |
| GARBITZAILEA | Adm. B. | Zer. Ber | Eskola graduat | C | %55,4 | E | 8 | 10.652,60 | 2 | 92-05-01 | Aktiboa |

BEHIN-BETIKO LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

| Lanp. Izena | Eskala | Azpi esk | Titulazioa | S.P | Ded | Ta | Maila | Os. Espez. | H.E. | Derr. Data | Egoera | Best. Otros |
|------------------|---------|----------|------------|-----|---------|----|-------|------------|------|------------|---------|-------------|
| GIZARTE LANGILEA | Adm Ber | TEKN | Diplomad | C | % 37,78 | A2 | 13 | Ez | 3 | 91-12-01 | Mugagab | |

2020 urterako Aurrekontu Orokorra eta Aurrekontu Exekuziorako Udal Arauak, 2020ko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda batzarrera hurbildutako zinegotzien aldeko botoekin, gehiengo absolutuarekin onartuak izan dira.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

**DATUAK JAKINARAZTEA ETA 2/2012 LEGE ORGANIKOKO HELBURUAK
BETETZEAREN EBALUAZIO TXOSTENA SINATZEA**

Entitatea: LIZARTZA

Ekitaldia: 2020

Jakinerazpenaren arduraduna: ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

IFZ: 72.431.427 B

Kontu hartzaile naizen aldetik, 2020 ekitaldirako aurrekontu datuak, hasierkao finantza egoerak eta gainerako informazio osagarria jakinarazten ditut, tokiko entitate hau osatzen duten eta administrazio publikoko izaera duten entitateei dagozkienak.

Aldi berean, 2/2012 Lege organikoak arautzen dituen helburuen betetzeari buruzko ebaluazio txostenari dagozkion datuak jakinarazten ditut. Honen ondorioz, tokiko entitate hau osatzen duten eta administrazio publikoko izaera duten entitateen aurrekontuak:

Aurrekontu egonkortasunaren helburua betetzen du.

Zor biziaren maila honako hau da: 0,00%

Ebaluazio txosten hau Udalbatza jakinean gelditzen da.

LAUGARRENA.- 2019/04 KREDITU ALDAKETA

**“KREDITU GAIKUNTZAREN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2019-KALD-
000004-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA**

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostena eta ziurtagiria aztertu dira. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko irizpena eta onarpena proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

ERABAKI DU

1.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

| Kap. | Izena | € |
|------------------------------------|--|------------------|
| 1 | Pertsonal Gastuak | 21.151,34 |
| 2 | Ondasun Arrunten eta Zerbitzuen Erosketa | 7.031,35 |
| 4 | Transferentzia Arruntak | 1.441,64 |
| GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA | | 29.624,33 |

SARRERAK

| Kap. | Izena | € |
|----------------------------|------------------------|------------------|
| 4 | Transferentzi Arruntak | 29.624,33 |
| FINANTZAKETAGUZTIRA | | 29.624,33 |

2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

BOSGARRENA.- MOZIOAK

Ez dago moziorik.

SEIGARRENA.- BESTELAKORIK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, gaueko bederatzitan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Iñaki Azpiroz Beldarrain

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia